BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

4251

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 23koa, Herrizaingo Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariarena. Honen bidez, batetik, xedatzen da PCA-215-2012-VI administrazio espedientea -prozedura laburtuko 154/2012-E administrazioarekiko auzi errekurtsoari buruzkoa- Administrazioarekiko Auzien Bilboko 6. Epaitegira bidaltzea, eta bestetik, epatzen dira balizko interesdunak, epaitegi horretan ager daitezen.

Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Bilboko Epaitegiak PCA-215-2012-VI administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du. Espediente hori 154/2012-E prozedura laburtuko administrazioarekiko auzietako errekurtsoari buruzkoa da, zeina bideratzen ari baita Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen zuzendariaren 2011ko irailaren 13ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoak presuntzioz ezestearen aurka. Ebazpen horren bidez, ezetsi egin ziren zerbitzu-eginkizunak erreklamatzeko egindako eskaerak.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Bilboko Epaitegira bidaltzea eskatutako administrazio-espedientea.

2.– Prozedura honetan interesa dutenak epatzea, egoki baderitzote, Administrazioarekiko Auzietako Bilboko 6. Epaitegian ager daitezen –154/2012-E prozedura laburtuan–, eta beren interesen alde egin dezaten. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

3.– Jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 23a.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.